



la
Pulga
eta Lagunak



soplidelpuma@yahoo.es / 0034 605754679 / www.lapulgaflamenco.com

La Pulga eta Lagunak

La Pulga eta Lagunak izeneko kuadro flamenkoa gara, eta gure azken sormena aurkeztera eta eskaintzera gatozkizu: **Ufadak**.

Ufadak Ikuskizuna tablaoarengatik inguruan egituratzen dugu. Flamenko tradizionalaren erroetatik abiatzen gara, magia-zko eta sentsaziozko giroa sortzeko. Taulagaineko ikuskizuna baino hareago, "duende" dun ikuskizuna jasoko duzu. Ikuskizun indartsua, sortzeko eta sentitzeko grinarekin prestatua, teknika zainduarekin plazaratua.



Ufadak 80 minutu inguruko ikuskizuna duzu. 80 minutu horietan dantza, kantua, gitarra, perkusioa eta palmak biltzen dituzten kantuen bitartez, flamenkoaren hainbat alderdi eskaintzen ditugu: seguidilla, alegria, solea, tangoa, buleria...

Ufadak erabateko ikuskizuna duzu, landua, bizia. Ikuskizunak irauten duen bitartean, ikusleak flamenkoa barneratu edo ezagutu ahalko du. Benetako flamenkoa; herri-tarren erabat errotuta dagoen artea; barne-emozio unibertsalen hizkuntza: Musika eta dantzaren bitartez mina,



poza, erro-gabezia, pena, sentimendua, askatasuna eta bizitza elkartzen dituena.

La Pulga eta Lagunak osatzen dugu:

Askoa Etxebarrieta Lasheras, *La Pulga*, dantzaria.

Jose Gil, *Giliyo*, perkusio-jotzailea.

Angel Lopez de Toro, cantaorea.

Aitor Escobar, gitarra-jotzailea.

Dantzaria

Askoa Etxebarrieta La Pulga

Askoa Etxebarrieta Lasheras, La Pulga, 4 urtetxo zituenean hasi zen ballet klasikoa dantzatzen; inauguratu zenarekin batera, Jesus Guridi Musika Eskolako dantza-klasetan, Carmelo Bernaolaren zuzendaritzapean. Eskola horretan bertan ikasi zuen, halaber, solfeo eta bibolina jotzen; nahiz eta geroago, bibolina perkusioagatik ordezkatu zuen. Gasteizko ballet klasikoko ikasketak bukatu zituenean, lehenengo Bilbora eta ondoren Madrilera Joan zen prestakuntzarekin jarraitzera. Hurrenez hurren, Solange Lefort irakaslearengana eta Víctor Ullate eskolara.

Askoa Etxebarrieta Lasherasek, La Pulga, herri-ikastaro batzuen bitartez ezagutu zuen flamenkoa. Eta halaxe erabaki zuen dantza flamenkoaren duende magikoa ikertzea, bere baitan harrapatzea lortu zuen arte. Bihozkada bat izan zen. Bere-berea duen nekaezintasunari esker, Sevillaraino eta Granadaraino joan zen flamenkoaren iturri



bila, haren zirrikitu ezkutuenak ere ezagutze-
ra. Hainbat flamenko ikastaro egin behar izan
zituena, besteak beste, Isabel Bayón, Farruqui-
to eta Juana Amaya irakasleekin. Eta, 10 urte
geroago, Askoak, La Pulga, duendea izatea
lortu zuen. Duende propioa, sentimendu uni-
bertsalak adierazten ditu dantza bitartez, tek-
nikaren eta soinuaren uztarketa bereziarekin.

Gaur egun, oraindik, prestatzen jarraitzen
du Askoak. Madrilera joaten da orain, bes-
teak beste, Alfonso Losa, David Paniagua eta
Pepa Molina irakasleengana; Sevillara ere bai.
Gainera, zuzeneko ikuskizunak eskaintzen
ditu hainbat taldetan, hala nola, Berriketan,
Adabegi, La Pulga eta Lagunak eta Ori-
gen musika taldeetan, eta La verdadera
Historia de Lola Puñales antzezlanean. Eta
irakaskuntzan ere badabil, dantza eta konpas
flamenkoa irakasten ditu ikastaro motzak, urte
osoko klaseak eta ikastaro trinkoak emanez.



Perkusio jotzailea

José Gil, *Giliyo*

Musikarako grina perkusioarekin ase izan du, baina flamenkoaren soinu-hotsek erakarri zutenetik kaxoiko maisu bilakatu da bera.

Urteak daramatza zeregin horretan eta Sevillan eta Madrilen bilatu ditu horretarako maisuak.

Egun, Berriketari taldeko kaxoi-jolea da, baita La Pulga eta Lagunak taldekoa ere, eta, noiz-behinka, La Patro Teatro, Raimundo Navarro, El Farru... proiektuetan parte hartzen du. Kaxoi flamenkoko irakasle ere jarduten du.



Cantaorea

Angel López de Toro

Txikitandik izan du kantatzeko zaletasuna, eta 25 urte zituenetik horixe du lanbide, cantaorea da bera.

Honen ibilbidea, Pepa Molina artista handiarekin egindako ikastaroetan oinarritzen da, Amor de Dios eskolako egonaldian... Nazioko eta nazioarteko zenbait tablaotan egin du lan, besteak beste, El Juglar, Los Jacintos eta El Cortijon (Stuttgart).

Gaur egun, hainbat proiektutan dabil murgilduta. Batzuetan cantaoreei lagunduz: Askoa Etxebarrieta, La Pulga; Saska Sasic, La Sali. Besteetan bakarka kantari. Eta, baita bestelako proiektuetan ere, Flamencoraneo, La Rosa del Penal, eta Berriketari taldeko cantaorea ere bera baita.



Gitarra jotzailea

Aitor Escobar

Musika miretsi egiten du berak, horregatik hasi zen gitarra jotzen. Bere ibilbidean hainbat maisu izan ditu: Luis Carrasco, Paco Serrano, Marcos Fernandez (harmonia garai-kidea eta jazz) eta Jose Luis Monton.

14 urterekin hasi zen eskenatokira igotzen zenbait kantari eta dantzariri laguntzera. 22 urte zituenerako lortu zuen kontzerturako gitarraren 1.go saria Centros Abiertos de Iruña lehiaketan.

Konpainia askorekin egin du lan, estatuan eta nazioartean hainbat gira egin dituelarik. Zenbait artistekin grabatu du: Mikel Urdangarin; Mercedes Garrote, La Merchi. Eta hainbat salatan jo du: Exit Palace... Cafe del Mar, Republica Cafe, Jerez Flamenco Chill eta Andaluçia Flamenco Chill zigiluek badituzte bere grabazioak. Gaur egun, bere proiektua eta konpainia ditu. Horretaz gain, La Pulga eta Lagunak eta Berriketako gitarrajolea ere bada.



la Pulga

eta Lagunak





Askoa Etxebarrieta

soplidelpuma@yahoo.es

0034 605754679

www.lapulgaflamenco.com